

# KONGRESU AURREKO ARAUDIA



1995.eko MAIATZA

<b>TXOSTENEN AURKEZPENA</b> .....	4. Orri.
<b>EZTABAIDARAKO MARKOAK</b> .....	4. Orri.
<b>ERABAKIUNEAK</b> .....	4. Orri.
<b>ZATIKAKO ETA OSOKO EMENDAKINAK</b> .....	4. Orri.
<b>EMENDAKINEN BATZORDEA</b> .....	5. Orri.
<b>ORDEZKARIAK ETA ORDEZKATZEKO SISTEMA</b> .....	5. Orri.
<b>KONGRESUAREN AURREKO EGUTEGIA</b> .....	6. Orri.
- 1/. Aurretiko fasea	
- 2/. Ponentziak lantzeko fasea	
- 3/. Erakunde osoan eztabaidak jorratzeko fasea	
- 4/. Fasea: ordezkarien hauteskundeak	
- 5/. Kongresua	
<b>KONGRESUAREN ARAUDIA (PROPOSAMENA)</b> .....	7. Orri.
<b>KONGRESUA GARATZEKO METODOLOGIA</b> .....	7. Orri.
- Kongresua irekitzea	
- Araudia onestea	
- Gestio Txostena eztabaitu eta ebaztea	
- Mahaia hautatzea	
- Ponentzia eta emendakinak eztabaidatu eta ebaztea	
- Bozketak	
- Idazkaritza Nazionalaren hautaketa	
- Ebazpenak	
- Kongresuaren garapena	

# TXOSTENEN AURKEZPENA

Onetsitako Estatutueto 14. artikuluko e) atalean xedatuta dagoen bezala, «Kongresuan eztabaidan jartzeko diren txosten eta gainontzeko dokumentuek afiliatuen eskura egon beharko dute lau hilabete lehenagotik, gutxienez».

Erakunde osoak ezagutu ahal izan ditzan, material hauek noiz argitaratu eta noiz jarriko diren eskura, Sindikatuaren komunikabidearen (Iraultzen) edo beste baten bitartez jakinaraziko da.

Material horien aurkezpena, dagozkien txosten-batzordeek egingo dute, afiliatuen eskualdeko batzarretan.

# EZTABAIDARAKO MARKOAK

Gure aurreko Konferentzia Nazionalan hartutako ebazpenetan zehaztu ziren egituretako bakoitzean (lurralde eta sektoreetakoak) txertatuko dira afiliatuak.

Dagozkion Herrialdeetako Idazkariak marko hauek eta egutegiak zehaztu beharko dituzte, ahalik eta eztabaida sakon eta zabalenean jorrazteko.

# ERABAKIUNEAK

Kongresurako delegatuak zehazteko, eskualde edo herri mailako batzarrak izango dira erabakiuneak (Estatutueto 14. art., b. atala)

# ZATIKAKO ETA OSOKO EMENDAKINAK

Idazkaritza Nazionalak aurkeztutako txosten eta dokumentuei emendakinak egin ahal izango dizkiete Kongresura dei egiteko data baino sei hilabete lehenagotik alta emanik daudenek, horretarako xedatutako epe eta moldeetan.

Emendakin guztiak idatziz aurkeztuko dira, Batzorde Iraunkor Nazionalari zuzenduak, emendatu nahi dena, honen izaera eta proposatutako testua xehetasunez adierazita. Hauekin batera, emendakina aurkezten duenaren izena eta egituraren betetzen duen gunea erantsiz.

Osoko emendakinak aurkeztu ahal izateko, gutxienez herri mailako afiliatuen batzar baten sostengua eduki beharko da.

Hainbat egituraren bitartez eskuratu ahal izango dira harremanetan jartzeko bitartekoak eta prozesu osoa errazteko beharrezkoak diren inprimakinak.

# EMENDAKINEN BATZORDEA

Batzorde honek, ondoren adierazten diren gaiiei buruzko erabakia hartzeko eskumena izango du:

- Eztabaidan jarri ahal izan daitezen, planteamendu edo proposamenetan antzekoak diren emendakinak batu edo elkartzeko, eta planteatzen diren joskera nahiz idazkera alorreko akatsak zuzentzeko, egileekin hitzegin ondoren.
- Itxuraz nahiz denboraz, behar bezala aurkezturik ez daudenak edota emendatu nahi den gaiari hertsiki ez dagozkionak baztertzeko.
- Osoko emendakinak eztabaidara aurkeztuko diren ala ez erabakitzeko.

Batzorde hau 95.11.01eko dataz osatuko da, ondorengo kideekin:

- Sektorearteko Batzorde Nazionalaren proposamenez, Konferentzia Nazionalak hautaturiko lau kide.
- Dagokion herrialdeak berea proposaturik, Konferentzia Nazionalak hautaturiko lau kide.
- Batzorde Iraunkor Nazionalak izendaturiko kide bat.
- Idazkaritza Nazionalak izendaduta, batzorde honetarako arduraduna.

Erabakiak gehiengo soilez hartuko dira eta, hainbana gertatzekotan, arduradunaren kalitatezko botoak erabakiko du emaitza.

## ORDEZKARIAK ETA ORDEZKATZEKO SISTEMA

Egituraren lurralde-markoetan eta hauetako afiliazio-portzentaiaren arabera hautatutako 600 pertsona ordezkaturik eta Idazkaritza Nazionalak -eskubide osoko kide bezala- osatuko dute Kongresua (Estatutuak, 14. art., b.).

Ordezkaritza-aldakinak eta hauen iharduera Konferentzia Nazionalak onetsiko ditu.

Eskualde bakoitzari dagokion ordezkarien kopurua, tokian tokiko afiliatuen arabera izango da, 95.08.31ko datuak kontuan hartuta. Osatutako Herri mailako Batasunei dagokienez, irizpide berberari helduko zaio.

Idazkaritza Nazionalak, Kongresua egin baino lau hilabete lehenago, Eskualdeko Batasun bakoitzari jakinaraziko dio dagokion ordezkarien kopurua.

Eskualdeko Batasunek bertako ordezkarien zerrenda jakinaraziko die Batzorde Iraunkor Nazionalari, bi hilabete lehenagotik.

Behar bezala azaldutako arrazoiengatik, Eskualdeko Batasunak aldatu ahal izango ditu ordezkariak; halaxe jakinaraziko dio Batzorde Iraunkor Nazionalari, gutxienez 15 egun lehenagotik.

Aurtengo abuztuaren 31an afiliazioan alta emanik daudenak, kuota guztiak ordaindu badituzte, hautesle izan daitezke.

Kongresura deitzen den egunean gutxienez sei hilabete afiliatuta daramala egiesten badu norbaitek, hautetsi izan daiteke (Estatutuak 8. art., c atala).

# KONGRESUAREN AURREKO EGUTEGIA

## - 1/. AURRETIKO FASEA

- 95eko urtarrila: - Helburuen jorraketa
- 95eko otsaila: - Gidoien aurkezpena. Ponentzia, Ponentzi taldeak.

## - 2/. PONENTZIAK LANTZEKO FASEA

- Martxotik ekainera: - Ponentziak lantzea  
(Id.Naz.ean 95.07.01ean aurkezteko)
- Konferentzia Nazionala (95.07.01):
  - Kongresurako deialdia egitea
  - Kongresuurreko araudia onestea
  - Kongresurako araudia (proposamena)
  - Kongresuaren garapena
  - Ponentzi zimborroen egoerari buruzko txostenak
- Irailaren 1ean: - Ponentzien argitarapena
- Urriaren 1ean: - Ponentzien banaketa

## - 3/. ERAKUNDE OSOAN EZTABAIDAK JORRATZEKO FASEA

- Urriaren 1etik azaroaren 15era: - Eztabaiden aurkezpena
- Azaroaren 1ean: - Osoko emandakinen aurkezpena
- Azaroaren 15ean: - Emendakinen aurkezpena
- Azaroaren 15etik abenduaren 31ra: - Emendakinen eztabaida

## - 4/. FASEA: ORDEZKARIEN HAUTESKUNDEAK:

- Urriaren 1etik azaroaren 30era.

## - 5/. KONGRESUA:

- 1996ko urtamilaren 26 eta 27an

# KONGRESUAREN ARAUDIA (PROPOSAMENA)

## **KONGRESUA GARATZEKO METODOLOGIA:**

### **- KONGRESUA IREKITZEA**

Kongresuaren lehendakaritza Idazkaritza Nazionalak eramango du eta honek emango die hasiera ofiziala ihardunaldiei, Gestio Txostenaren eztabaida eta onespena zuzendu eta Kongresuko Mahaiaren hautaketa egingo du.

### **- ARAUDIA ONESTEA**

Aldez aurretik Konferentzia Nazionalean onetsi den Araudiaren proposamena aurkeztuko du Idazkaritza Nazionalak, plenarioan eztabaidan jarri eta onetsia izan dadin.

### **- GESTIO TXOSTENA EZTABAITU ETA EBAZTEA**

Aldez aurretik ordezkari diren guztiak ezagutzen dutela, egindako Gestioari buruzko Txostena Idazkaritza Nazionalak aurkeztuko du, eztabaidan jarri eta onetsiua izan dadin.

### **- MAHAIA HAUTATZEA**

Kongresuko Mahaia osatzeko proposamena Idazkaritza Nazionalak egingo du, Araudi honetan jasotzen diren irizpideen arabera.

Mahaia honela osatuko da: pertsona bat Lehendakari eta beste zortzi mahaikide. Hauen artean banatuko dira beharrezkoak diren ardurak (aktak, jarraipen zehatzak, e.a.). Mahaia osatzean, lurralde zein sektoretan orekatua izan dadin ahaleginak egingo dira.

Mahaia euskaraz bakarrik arituko da bere eginkizunak betetzean.

Kongresuko Mahaia hautaturik, Idazkaritza Nazionalak kargu uztea egingo du eta ordezkari-tzaren ardura nahiz Kongresuaren garapenari buruzko beste kontu guztiak Mahaiak berak hartuko ditu beregain.

### **- PONENTZIA ETA EMENDAKINAK EZTABAIDATU ETA EBAZTEA**

Lehen-lehenik, honelakorik balego, osoko emendakinen eztabaida eta ebazpena egingo da.

Emendakinen bat ponentzi taldeek onetsiko balute ere, eztabaidarako metodologia goian azaldutako bera izango da. Prozedura:

- 1/. Ponentzia aurkeztea
- 2/. Emendakina aurkeztea
- 3/. Ponentzigileen eskuhartzea
- 4/. Eztabaida
- 5/. Emendagileen eskuhartzea
- 6/. Ponentzigileen eskuhartzea
- 7/. Bozketa

Eskuhartzeak zehatzak izan daitezen zainduko du Mahaiak, aurkezpen luzeegirik gerta ez dadin.

### **- BOZKETAK**

Ordezkari bakoitzak boto bana eramango du eta hau ezingo da delegatu beste inorengan.

Ebazpen edo erabakiak hurrengo eran hartuko dira:

- Estatutuetan xedatutako gehiengo koalifikatuak kontutan hartu behar direnean, botoak zenbatu beharko dira ezinbestez.
- Gehiengo nabarmen gertatzen denean, erabakia onartu egingo da, botoak kontatzen ibili gabe, norbaitek espreski horrela eskatuko ez balu.
- Idazkaritza Nazionalaren hautapena isileko bozketa nominalaren bitartez egingo da.
- Osoko emendakina onetsia izan dadin, bozketan presente dauden ordezkari guztien erdiak gehi baten botoak eduki beharko ditu.

### **- IDAZKARITZA NAZIONALAREN HAUTAKETA**

Kargua uzten duen Idazkaritza Nazionalak, arduradun nazionalek (baita herrialdekoek ere) Kongresura aurkezten duten hautagaien zerrendarako proposamena onetsiko du. Batzorde Iraunkor Nazionalak proposamena aurkeztuko dio Idazkaritza Nazionalari, Kongresua hasi baino bi hilabete lehenago, gutxienez.

Kargua uzten duen Idazkaritza Nazionalak zerrenda itxiztat hartu beharko da, gizataldearen harmoniari begira eta bozketan (bertan dauden guztien) gehiengo absolutua ez jasotzekotan bakarrik zabalduko litzateke beste aukera bat: hautagai bakoitza hautatzea, alegia, baldin eta Idazkaritza Nazionalak beste zerrenda oso bat aurkeztu behar duela erabakiko ez balu.

Bozketa banan-bana egiten denean, hautagai guztiek gehiengo absolutua jaso beharko dute. Gehiengo hori hartuko ez balu, beste hautagai bat proposatu beharko litzatzeke.

Zatikako proposamenek osokoa funtsez aldatzen dutela ulertzen bada, Idazkaritza Nazionalari eskumena aitortuko beste hautagai zerrenda bat aurkezteko.

Hautagai zerrenda bat baino gehiago aurkeztuko balira ere (zerrendak, egituretako organoren batek aurkeztu beharko dituelarik), goian adierazitako prozedura beteko da.

Idazkaritza Nazional berria osatzerakoan, lurralde mailako ordezkariak egiturako dagozkien markoan (Herrialdeko Konferentzian) onetsi beharko dira, Kongresua ireki baino hilabete lehenago.

### **- EBAZPENAK**

Sindikatuaren egituretako edozein organok beharrezkotzat jo ditzakeen ebazpenak aurkeztu ahal izango dizkio, idatziz, Kongresuko Mahaiari, beti ere, eztabaidarako ponentzien edukinean eraginik ez dutela izan behar kontutan hartuta.

### **- KONGRESUAREN GARAPENA**

Batzorde Iraunkor Nazionalak proposatuta, Idazkaritza Nazionalak bitarte egokiak eskura jarri beharko ditu, Kongresuaren iharduera zuzena izan dadin. Ondoren jasotzen diren kontuei buruzko informazioa gutxienez hilabete lehenago aurkeztu beharko diete Kongresurako ordezkariak:

- Ordezkarien egiaztagirak
- Kongresuaren ordutegia eta ihardunaldiak
- Inbitatuak
- Amaierako ekitaldia
- Kongresuaren garapen teknikoak (bapateko itzulpena, ordezkarien kokaguneak, e.a.).

### **AZPIEGITURA ETA ARDURA TEKNIKOETARAKO BATZORDEA**